



USTELKERIAREN AURKAKO POLITIKA

EDUKIA

1	SARRERA. USTELKERIAREN AURKAKO POLITIKAREN HELBURUA	1
	1.1 Ustelkeriaren aurkako Politikaren xedea.....	1
	1.2 Aplikazio-esparru subjektiboa	1
2	BARNE-POLITIKA.....	3
	2.1 Definizioak	3
	2.2 Jokabide-jarraibideak	4
3	JAKINARAZPENA ETA SALAKETA. EZ BETETZEAGATIKO ERANTZUKIZUNA.....	7
4	EGUNERATZEA ETA HOBEKUNTZA.....	8
5	DIZIPLINA-ARAUBIDEA.....	8
6	USTELKERIAREN AURKAKO POLITIKA INDARREAN SARTZEA ETA INDARREAN EGOTEA	8

2 SARRERA. USTELKERIAREN AURKAKO POLITIKAREN HELBURUA

Ustelkeriaren aurkako Politika honen (aurrerantzean, "**Ustelkeriaren aurkako Politika**") helburua da AGUAS DEL AÑARBE - AÑARBEKO URAK SAn (aurrerantzean, "AUSA") ustelkeria edo eroskeria aktibo zein pasibotzat jo daitekeen edozein praktika prebenitu eta kudeatzea.

Horrela, besteak beste, merkataritza- eta lan-harremanen osotasuna, gardentasuna, konpromisoa eta legezketasuna bermatu nahi dira, bai erakunde publikoekin bai pribatuekin, eta, era horretan, iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak prebenitzeko, detektatzeko eta zuzentzeko dauden mekanismoen eraginkortasuna bermatu; hori guztia AUSAren Iruzurraren aurkako Neurrien Planaren esparruan.

2.1 Ustelkeriaren aurkako Politikaren xedea

Ustelkeriaren aurkako Politika honen helburua da unean-unean indarrean dagoen legeria betetzea, botere publikoen gomendioak betetzea, eta gizarte-erantzukizuna eta administrazio-lan egokia betetzea, ustelkeriaren prebentzioaren arloan aplikatu beharreko irizpideak arautzeko helburuarekin —batez ere egin beharreko jardueran—, dela erakunde kudeatzaile gisa, dela erakunde betearazle gisa, irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduak, SEEPen kudeaketa-sistema taxutzen duenak (aurrerantzean, "**HFP Agindua**"), aipatzen duen Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana (aurrerantzean, "**SEEP**") betetzeko.

Horrela, AUSA osatzen duten langile guztien portaerak arautu behar dituzten jarraibide orokorrak, balioak eta printzipioak ezartzen dira, bai zuzendaritza-mailan, bai langile guztien artean, edozein motatakoak direla ere, modu batera edo bestera jarraitu beharreko espediente eta prozeduretan esku hartzen badute.

Ustelkeriaren aurkako Politikak, beraz, funtsezko helburu hauek ditu:

- AUSAren oinarrizko balioak eta printzipioak garatzea eta berrestea.
- Jokabide ustel bat eragin dezaketen eta, beraz, estatuko eta nazioarteko araudiek debekatzen dituzten jokabideak deskribatzea, ondoren prebenitzeko eta detektatzeko.
- Jardunbide ustelak izan daitezkeen egoerez ohartaraztea eta babestea AUSA eta haren kideak, eta, beraz, erreputazio-arriskuan eragina izan dezaketen zehapenak edo egoerak ezartzea saihestea, erabakiak hartzerakoan jokabide etiko eta egokia sustatuko duten eta irregulartasunak eta ez-betetzeak jakinaraztea ahalbidetuko duten jarduketa-jarraibide orokorrak deskribatuz.

2.2 Aplikazio-esparru subjektiboa

Ustelkeriaren aurkako Politika hau AUSAko kide guztiei aplikatu ahal izango zaie, kontratu-modalitatea, harekin lotzen duen posizio hierarkikoa edo funtzionala edozein dela ere; bereziki, Batzordeko kideak, Administrazio Kontseiluko kideak, Zuzendaritzakoak eta Saitetako arduradunak (hemendik aurrera, horietako batez hitz egitean "**Profesionala**" deituko zaio, eta modu bateratuan, "**Profesionalak**"). Era berean, onuradun edo hirugarren gisa AUSArekin harremanak dituzten sozietate kontratistek eta azpikontratistek ere aplikatu dakieke.

Ustelkeriaren aurkako Politika hau profesional guztientzat eta agintarientzat egongo da eskuragarri, eta bete beharreko espedienteetan esku-hartzeren bat duen hirugarren orori jakinaraziko zaio, onuradun gisa edo beste izaera batekin. Hirugarren horiek guztiek konpromisoa hartu beharko dute politika hori betetzeko.

Horrez gain, Ustelkeriaren aurkako Politika honen edukia Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikuluan aurreikusitako egoeraren batean dauden pertsonen ere aplikatzen zaie:

- a) *Interes pertsonala izatea aztertuko den gaian edo besteren batean, baldin eta azken horren ebazpenak lehenari eragin badiezaioke; sozietate edo entitate interesdunen bateko administratzaile izatea, edo interesdunen batekin ebatzi gabeko auziren bat izatea.*
- b) *Ezkontza-lotura edo antzeko egitatezko egoera izatea, eta ahaidetasuna izatea, laugarren gradurainoko odolkidetasunezkoa edo bigarren gradurainoko ezkontza-ahaidetasunezkoa, interesdunetako edozeinekin, entitate edo sozietate interesdunen bateko administratzaileekin, bai eta prozeduran esku hartzen duten aholkulari, legezko ordezkari edo mandatariekin ere, edo haien bulego berekoa izatea edo haiekin elkartuta egotea aholkularitza, ordezkaritza edo mandataritzarako.*
- c) *Aurreko letran aipaturiko pertsonetakoren batekin adiskidetasun mina edo ikusiezin nabarmena izatea.*
- d) *Dagokion prozeduran aditu edo lekuko gisa parte hartua izatea.*
- e) *Gaian zuzeneko interesa duen pertsona fisiko edo juridikoren batekin zerbitzu-harremana izatea edo pertsona horri, azken bi urteetan, zerbitzu profesionalak eskaini izana, edozein motatakoak eta edozein baldintza eta tokitan.*

Zirkunstantzia horiek, hala badagokio, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko uztailaren 18ko 2018/1046 (EB, Euratom) Erregelamenduan, Batasunaren aurrekontu orokorrari aplikatu beharreko finantza-arauei buruzkoan, jasotako aurreikuspenekin bat etorritzat interpretatuko dira.

Ustelkeriaren aurkako Politika hau profesional guztiei jakinaraziko zaie eta hauen eskura egongo da, baita AUSAn behar bezala ezarritako iruzurraren aurkako sistemari buruzko beste dokumentu batzuk ere. Profesional guztiei jakinaraziko zaie, euren arteko harremanaren izaerak hala eskatzen duenean; profesional horiek plana betetzeko konpromisoa hartu beharko dute.

Horrez gain, Ustelkeriaren aurkako Politika honen edukia deskribatutako subjektuei lotutako pertsonen ere aplikatzen zaie, eta, bereziki, adibide gisa, familia-lotura hau dutenei: bigarren mailara arteko ahaidetasuna, odol-ahaidetasunagatik edo ezkontza-ahaidetasunagatik (aurrekoak, ondorengoak, anai-arrebak edo ezkontideak edo horiekin antzeko lotura duen pertsona, horietako edozein).

Era berean, AUSAk konpromisoa hartzen du Ustelkeriaren aurkako Politika honetan araututako jarraibide eta printzipioek merkatuko beste eragile batzuekin dituen merkataritza- edo lan-harreman guztiak arautzeko, hala nola hornitzaileekin, laguntzaileekin, kontratistekin edo hark kontrolik ez duen enpresa partaidetuekin.

3 BARNE-POLITIKA

3.1 Definizioak

- **“Partikularren arteko ustelkeria”**: Partikular batek, bere kabuz edo bitarteko pertsona baten bidez, merkataritza-enpresa edo sozietate bateko zuzendari, administratzaile, enplegatu edo laguntzaileei edozein motatako onura edo abantaila agindu, eskaini edo ematea, justifikatu gabe, beraientzat edo hirugarrenentzat, salgaiak erosi edo saltzean, zerbitzuak kontratatzean edo merkataritza-harremanetan berari edo hirugarren bati bidegabe mesede egiteko kontraprestazio gisa.

Era berean, partikularren arteko ustelkeria da sozietate bateko zuzendariak, administratzaileak, enplegatuak edo laguntzaileak, bere kabuz edo bitarteko pertsona baten bidez, justifikatu gabeko edozein motatako onura edo abantaila jaso, eskatu edo onartzea, edo hura lortzeko eskaintza edo promesa egitea, beretzat edo hirugarren batentzat, beste bati bidegabe mesede egiteko kontraprestazio gisa, salgaiak erosi edo saltzean, zerbitzuak kontratatzean edo merkataritza-harremanetan.

- **“Ustelkeria nazioarteko merkataritza-transakzioetan”**: Bidegabeko, diruzko edo bestelako edozein onura eskaintzea, hitzmatea edo ematea, agintari edo funtzionario publiko bati, bere kabuz edo bitarteko pertsona baten bidez, usteltzen saiatzeko, horien edo hirugarren baten mesedetan, edo horren inguruan haren eskaerei erantzuteko, helburu honekin: funtzio publikoak betetzeari dagokionez jardun dezaten edo ez dezaten, kontratu, negozio edo nazioarteko jarduera ekonomikoak egitean lehiarako beste edozein abantaila lortzeko edo mantentzeko.
- **“Funtzionario publikoaren eroskeria edo ustelkeria”**: Agintaritza batek, funtzionario publiko batek edo funtzio publikoa betetzen parte hartzen duen pertsona batek, bere onurarako edo hirugarren baten onurarako, bere kabuz edo bitarteko pertsona baten bidez, hobaria, mesedea edo ordainsaria jaso edo eskatzen duen, edo eskaintza edo promesa onartzen duen ekintza, bere karguari edo honekin lotuta dagozkion eginbeharren aurkako egintza bat egiteko, edo egin beharko lukeena ez egiteko edo atzeratzeko. Baita esleitu zaizkien pertsonak ere, baldin eta zerbitzu publikoko eginkizun bat betetzen ari badira, hau da, Estatu Kideetan edo hirugarren herrialdeetan Europar Batasunaren finantza-interesak kudeatzea edo interes horiei buruzko erabakiak hartzea.
- **“Eroskeria”**: Agintari bati, funtzionario publiko bati edo funtzio publikoa betetzen parte hartzen duen pertsona bati beste edozein motatako hobaria edo ordainsaria eskaintzea edo ematea, bere karguari dagozkion edo bere karguari lotutako eginbeharren aurkako egintza bat egin dezan, edo egin beharko lukeena egin ez dezan edo atzeratu dezan.
- **“Estortsioa”**: Egintza honen bidez, irabazi-asmoa duen pertsona batek beste bat behartzen du, indarkeria edo larderia erabiliz, egintza edo negozio juridiko bat egitera edo ez egitera, azken horren ondarearen edo hirugarren baten kaltetan.
- **“Autoritatea”**: Bere kabuz edo korporazio, auzitegi edo kide anitzeko organoren bateko kide gisa agintea edo jurisdikzio propioa duen pertsona oro. Nolanahi ere, honako hauek izango dute izaera hori, adibide gisa: Diputatuen Kongresuko, Senatuko, Autonomia Erkidegoetako Legebiltzarretako eta Europako Parlamentuko kideek eta Fiskaltzako funtzionarioek.

Autoritatearen kontzeptua ahalmen bera duten pertsoneri ere aplika dakieke atzerriko herrialdeetan —Europar Batasuneko kide izan edo ez—, edo nazioarteko erakundeetako kide

diren pertsoneri.

- **“Funtzionario publikoa”**: Legeak berehala xedatuta edo agintaritzea eskuduna aukeratuta edo izendatuta funtzio edo jarduera publikoetan parte hartzen duen oro.

Funtzio edo jarduera publikoak betetzen direla ulertuko da funtzio edo jarduera horiek izaera publikoko arauak zuzentzen dituztenean, nahiz eta eginkizun edo jarduera horiek egiten dituen pertsona edo erakundea pribatua izan.

- **“Influentzia-trafikoa”**: Pertsona batek funtzionario publiko edo agintari batengan eragiten duen egintza, funtzionario publiko horrekin edo beste batekin edo agintari batekin duen harreman pertsonaletik eratorritako edozein egoeraz baliatuz, zuzenean edo zeharka berarentzat edo hirugarren batentzat onura ekonomikoa ekar diezaiokeen ebazpen bat lortzeko.
- **“Ahaideak”**: Ahaideen kategoria honako hauek dute: hirugarren mailarainoko aurrekoak, eta horien bikotekideak eta/edo ezkontideak; laugarren mailarainoko odol-ahaidetasuneko ondorengoak, eta haien bikotekideak eta/edo ezkontideak, lotura bikoitz edo xumeko anai-arrebek eta haien bikotekide edo ezkontideak; ezkontideak edo antzeko afektibitate-harremanaren bidez modu egonkorrean lotuta dagoen pertsonak.
- **“Hurbilekoak”**: Norberarekin adiskidetasun-harreman estua duten pertsona fisikoak, edo pertsona edo tresna juridiko baten titulartasuna edo kontrola norberarekin batera duten pertsona fisikoak, edo beste mota bateko enpresa-harreman estuak dituztenak, edo pertsona edo tresna juridiko baten titulartasuna edo kontrola dutenak, baldin eta pertsona edo tresna juridiko hori pertsona edo tresna horien onurarako eratu bada nabarmen.
- **“Onura”**: Ondarea edo estatus pertsonala, profesionala edo komertziala hobetzea dakarren irabazi mota oro, dirukoa izan edo ez.
- **“Promes”**: Etorkizunean pertsona hartzailaren alde jarduteko borondatearen adierazpena, eta promesa egiten duen pertsonaren edo hirugarren baten mesederako aurretik egindako jarduketa baten mende dagoena.
- **“Oparia”**: Liberaltasun-egintza, zeinaren bidez pertsona batek gauza bat doan ematen duen beste baten alde, ohituraz edo bere borondatez.
- **“Sustapen-oparia”**: Negozioetan kortesia- edo arretea-xehetasuna, aplikatzekoa den legezko araudiaren arabera.
- **“Abantaila”**: Partikular, funtzionario publiko edo agintari batek duen egoera baten aldean edozein hobekuntza mota, diruzkoa izan ala ez.
- **“Bideratze-ordainketak”**: Pertsona bati, funtzionario publiko bati edo enpresa pribatu bateko langile bati, mesede bat lortzeko —hala nola administrazio-izapide bat bizkortzea, baimen, lizentzia edo zerbitzu bat lortzea, edo botere-abusua saihestea— egiten zaizkion kopuru txikiko ordainketak edo opariak.
- **“Betetze Batzordea”**: AUSAren iruzurraren aurkako sistemari buruzko gai guztien organo autonomoa, aholku-emailea eta kudeaketa-organoa. Bertan sartzen dira politika hau eta ustelkeriaren, eroskeriaren eta interes-gatazkaren arloko gainerako politika, arau, prozedura eta kontrolak, AUSAk garatutako SEEPen arabera.

3.2 Jokabide-jarraibideak

a. Opariak eta/edo erregaliak debekatzea

Oparien onarpena Kode Etikoan araututa dago, baita AUSAren Oparien Politikan ere, eta profesional guztiek nahitaez bete behar dute.

Oparien Protokoloan jasotakoaren arabera, oro har, ezin profesionalek ezin izango du inolako oparirik eta/edo erregaliarik onartu. Hala ere, aurrekoaren salbuespen gisa, (i) balio txikia, balio sinbolikoa duten edo sustapenekoak diren opariak jaso eta/edo eman ahal izango dira tarteka; (ii) herrialde bakoitzeko legeriak eta bere kulturaren printzipio etikoek baimendutakoak; (iii) gizarte-usadioen barruan ohikotzat jo daitezkeenak, edo kortesiazkoak, oparia jasotzen edo ematen duen pertsonak betetzen duen postu zehatza ere kontuan hartuta; eta (iv) AUSAren irudia kaltetzen ez dutenak.

Oparien Protokoloan aurreikusitakoaren arabera bidegabekoa izan daitekeen edozein opari jasotzen duenak opari hori itzuli egin beharko du, eta itzulketa hori egin duela idatziz jaso beharko du. Idatzi hori Betetze Batzordeak artxibatuko du.

Opariren bat jasotzeari edo entregatzeari buruzko zalantzarik izanez gero, dagokion profesionala Betetze Batzordearekin harremanetan jarri beharko da baimena jasotzeko, oparia onartu edo entregatu aurretik.

b. Interes-gatazkak

Interes-gatazkak saihesteko, AUSAk aurreikusi du interes pertsonalak eta profesionalak gatazkan sartzen direnean (hau da, AUSAri kaltea eragingo dion norberaren onura bilatzen denean) egoera horren berri Betetze Batzordeari ematea, salaketen kanalaren bidez.

Interes-gatazken erregulazioa AUSAren Interes Gatazkak Kudeatzeko Politikan jasotzen da. Politika hori nahitaez bete beharrekoa da, bai profesionalen aldetik, bai modu batera edo bestera AUSArekin lan egiten edo kolaboratzen duten pertsona guztien aldetik.

c. Estortzioak eta eroskeriak

Sektore Pribatuaren esparruan.

Debekatuta dago enpresei, administratzaileei, zuzendariei, enplegatuei edo haien senide edo hurbilekoei eskaintza, promesa, emakida edo eskaera egitea —zuzenean edo bitarteko pertsonen bidez— edozein abantaila edo onura ekonomiko edo beste edozein motatakoa, merkantziak erosi edo saltzen edo edozein zerbitzu kontratatzen laguntzeko.

Debekatuta dago justifikatu gabeko edozein abantaila edo onura onartzea, jasotzea edo eskatzea, hirugarrenen kalterako abantaila eskaintzen duen pertsonari edo enpresari mesede egiteko.

Era berean, debekatuta dago, zuzenean edo bitarteko pertsonen bidez, ezkutuko komisioak eskaintzea edo eskatzea kontratatzeko asmoa duten komertzialei, zuzendariei, enplegatuei, administratzaileei edo hornitzaileei.

Sektore Publikoaren esparruan.

Debekatuta dago funtzionario publikoei, agintariei edo funtzio publikoak betetzen dituen beste edozein pertsonari —beren kargua hautetsia izan edo ez, edo nazionalitatea edozein dela ere—, edo izaera publikoko beste edozein pertsona fisiko edo juridikori —haien senideak edo hurbilekoak barne, hauek nazionalak edo atzerritarrak izan kontuan hartu gabe— edozein motatako abantaila edo onura ekonomikoa eskaintzea, hitzematea edo ematea.

Era berean, debekatuta daude laguntza-ordainketak —normalean, maila txikiagoko funtzionario publikoei egindako ordainketa txikiak izaten dira— egitea, baldin eta horien helburua izapideak arintzea edo zerbitzu bat ematea erraztea bada, nahiz eta onura bidegabe bat lortzeko asmorik ez izan.

Atzerriko agintarien kasuan, ezin izango da oparirik eskaini, ezta eman ere, beren kargua edo eginkizuna kontuan hartuta, gizarte-usadioekin bat datozen opariak izan ezik, eta betiere tokiko araudiak debekatzen ez baditu; gainera, opariak Betetze Batzordearen baimena izan beharko du.

d. Influentzia-trafikoa

AUSAk debekatu egiten du influentzia-trafikoko delitu izan daitekeen edozein jarduera.

Bereziki, debekatuta dago:

- Funtzionario publiko edo agintari batengan eragitea, pertsona horrekin duen harreman pertsonalaz baliatuta, ebazpen onuragarria lortzeko edo galera saihesteko.
- Hirugarren baten bitartekari gisa jardutea, funtzionario publiko edo agintari batekin izandako harreman pertsonalagatik, hirugarren horrentzat harreman pertsonala duen funtzionario publikoarengandik mesedezko tratua lortzeko.

e. Alderdi politikoekin harremana

AUSAk une oro beteko ditu alderdi politikoen finantzaketa-araudiak.

Nolanahi ere, debekatuta daude alderdi politikoei, federazioei, koalizioei eta hautesle-elkarteei zuzendutako dohaintzak edo ekarpenak, baldin eta alderdi politikoen finantzaketari buruzko uztailaren 4ko 8/2007 Lege Organikoa urratzen badute. Era berean, AUSAk ezin izango ditu zuzenean edo zeharka alderdi politiko bati zuzenduta dauden etekinak dituzten produktuak edo zerbitzuak erosi.

AUSAk ez du parte hartuko alderdi politikoekin edo antzeko erakundeekin edo horiekin lotutakoekin zerikusia duten eragin-taldeetan, salbu eta Betetze Batzordeak berariaz baimentzen badu, eta jarduera ustelkeria-ekintza bat ez dela, ezta alderdi politikoen finantzaketa ere, eta AUSAren barne-arauekin bat datorrela erabakitzen badu.

f. Bidaia- eta ordezkaritza-gastuak

Bidaia- eta ordezkaritza-gastuak arrazoizkoak izango dira, eta gastu horiek ezin izango dira gehiegizkotzat jo, eta horien bidez berezkoek bestelako prestazioren bat ordaintzen ari direla

edo negozioren bat lortzea errazten saiatzen ari direla pentsatzea baztertuta egongo da.

Nolanahi ere, barne-araudian aurreikusitakoaren arabera eta bidaia- eta lan-jarduerak kontuan hartuta ordainduko dira.

Ahal den neurrian, bidaia- eta ordezkari-gastuak zuzenean ordainduko zaizkio zerbitzua ematen duenari, pertsona juridikoa edo pertsona fisikoa izan, eta, nolanahi ere, ordainketa bakoitzari dagokion egiaztagiria aurkeztu beharko da.

g. Hornitzaileen kontratazioa

Hornitzaileak kontratatu aurretik, hornitzaile horiek AUSAk homologatuta egon beharko dute. Homologazioak, beste parametro batzuen artean, irizpide hauek izan beharko ditu kontuan:

- Hornitzaileak egoitza soziala edo egiazko egoitza nagusia duen herrialdearen erregulazioa, baita herrialde horretako egoera soziopolitikoa eta ustelkeria-maila ere.
- Hornitzen dituen produktu edo zerbitzuen jatorria.
- Kontratatu nahi den jarduera egiteko baliabide materialak eta giza baliabideak nahikoak izatea.
- Hornitzailearen eta AUSAko edozein kideren artean egon daitekeen familia-harremana.

Nolanahi ere, hornitzaile bat hautatzeko, nahitaezkoa izango da AUSAren prozedurei eta barne-politikei atxikitzea.

h. Hirugarrenen komisiok, ordainketak edo onurak

Profesionalek ezin izango dizkiete ordainketak eskudirutan, espeziean edo beste edozein modutan, zuzenean edo zeharka, jaso, eskaini edo eman erakunde publiko edo pribatuen, alderdi politikoaren edo kargu publikoaren zerbitzura dauden pertsonen, inbertsio-, desinbertsio- edo finantzaketa-eragiketarak, edo bestelako negozioak edo abantailak burutzeko edo legez kontra mantentzeko asmoarekin.

4 JAKINARAZPENA ETA SALAKETA. EZ BETETZEAGATIKO ERANTZUKIZUNA

Ustelkeriaren aurkako Politika honen aplikazioari buruzko edozein zalantza hierarkian gorago dagoenari eta/edo Betetze Batzordeari zuzendu beharko zaio Salaketan Kanalaren bitartez. Bermatzen da fede oneko informatzaileak eta honekin zerikusia duten pertsonen ez dutela inolako errepresaliarik jasango, betiere konfidentziasuna bermatuz.

Era berean, prozedura hori erabili beharko da politika honetan, Kode Etikoan edo AUSAren beste edozein prozeduratan ezarritakoa ez dela betetzen susmatzen bada.

Ustelkeriako jardueraren bat egin dela susmatzen bada, HFP AGINDUAN xedatutakoaren arabera, iruzurrezko jarduera hori gertatzen ari den edozein prozedura berehala etengo da; ahalik eta lasterren jakinaraziko zaie hori agintari interesdunei eta jarduketak egiten inplikaturako erakundeei; era berean,

horren eraginpean egon daitezkeen proiektu, azpiproiektu edo ekintza-ildo guztiak berrikusiko dira; hala badagokio, gertakariak agintari publiko eskudunen aurrean salatuko dira, hala nola Iruzuraren aurkako Koordinazio Zerbitzu Nazionalaren (SNCA) aurrean, baloratu eta Iruzuraren aurka Borrokatzeko Europako Bulegoari jakinarazteko, eta erantzukizunak argitzeko edo diziplina-espedientea hasteko informazio erreserbatua hasteko.

Era berean, gertakariak Fiskaltzaren aurrean salatu beharko dira, hala dagokionean.

5 EGUNERATZEA ETA HOBEKUNTZA

Ustelkeriaren aurkako Politika urtero berrikusiko du Betetze Batzordeak, eta, nolnahi ere, plana eguneratzea edo aldatzea dakarren arau-aldaketaren bat gertatzen denean.

Ustelkeriaren aurkako Politika AUSAren komunikabide arrunten bidez argitaratuko da, profesionalek, negozio-bazkideek eta alderdi interesdunek osorik ezagutu dezaten.

6 DIZIPLINA-ARAU BIDEA

Nolnahi ere, Ustelkeriaren aurkako Politika honetako xedapenak eta AUSAk garatutako gainerako politikak eta prozedurak eta/edo politika eta prozedura horiek garatu edo osatzen dituztenak betetzen ez badira, dagozkion diziplina-zehapenak ezarri ahal izango dira, Estatutuen araubidearekin, Hitzarmen Kolektiboarekin, lan-legeriarekin eta profesionalek hartutako gainerako betebeharrak zibil eta merkataritzakoekin bat etorritik.

Delitu diren arau-hausteen kasuan, AUSAk agintari eskudunen aurrean salatuko du jokabide hori.

Bezereen, hornitzaileen, onuradunen eta kanpoko laguntzaileen ez-betetzeak hautematen badira, dauden kontratu-harremanak amaitzeko mekanismoak aktibatuko dira.

7 USTELKERIAREN AURKAKO POLITIKA INDARREAN SARTZEA ETA INDARREAN EGOTEA

AGUAS DEL AÑARBE – AÑARBEKO URAK SAren Administrazio Kontseiluak 2023ko uztailaren 28an onartu zuen Ustelkeriaren aurkako Politika. Hori berehala sartu da indarrean, eta indarrean egongo da harik eta aldatetarik egin arte.